

gaurko filmak

Al ponerse el sol	★
Zuz.: Mario Camus. 92 min. Esp. 1967. 11:00 La2	
El rifle del forastero	★★
Zuz.: Roy Rowland. 88 min. 1957. 18:20 ETB2	
C'est pas ma faute!	★
Zuz.: Jacques Monnet. 90 min. Fran. 1999 20:55 TF1	
Pinot, simple flic	★★
Zuz.: Gerard Jugnot. 90 min. Fran. 1984. 20:55 F2	
La guerra de las galaxias	★★★★
Zuz.: George Lucas. 120 min. AEB. 1977. 22:00 T5	
Una historia diferente	★★
Zuz.: Danny Boyle. 115 min. 1997. 22:15 ETB2	
Caramelo asesino	★
Zuz.: Darren Stein. 100 min. AEB. 1999 22:30 C+(e)	
Mauvaise passe	★★
Zuz.: M. Blanc. 105 min. Fran-EB. 1999. 23:35 F3	
L'obsède	★★★
Zuz.: William Wyler. 120 m. EB-AEB. 1965 00:40 Arte	
Chinatown: atracción mortal	★
Zuz.: Michael Pressman 91 m. AEB. 1989 02:00 La2	
Noche de reyes, o lo que ...	★★
Zuz.: Trevor Nunn. 130 min. 1995. 04:00 A3	
●	★
●	★★
●	★★★
●	★★★★
●	★★★★★
Txarra	Eskasa
Balekoa	Ona
Bikaina	

AL PONERSE EL SOL

★ La 2 - 11:00

Zuz.: Mario Camus. Akt.: Raphael, Serena Vergano. 92min. Espainia. 1967.
Mario Camus hasiberri batek Raphael abeslaria-
ren luzimendu hutserako
sortutako melodrama
musikal inozo hau, egun
oso zaharkitua dagoena,
zinema baino abeslari ho-
rren ahotsa eta etengabe-
ko keinuak atsegin ditu-
zuenek irentsi ahal izango
duzue, soilik.

EL RIFLE DEL FORASTERO

★★ ETB2 - 18:20

Zuz.: Roy Rowland. Akt.: Stewart Rowland,
Rhonda Fleming. 88 min. 1957.
Egun pasatuxea dagoen
western arin eta txiki hone-
kin arratsalde entreteni-
garria igaroko duzue, ziu-
rrenik. Rhonda Fleming,
Stewart Granger eta
Hollywoodeko izar dirdi-
ratsuetakoak izandako
beste antzezleak biltzen
ditu kameraren parean,
eta atzean, berriz, Roy
Rowland (*5.000 Fingers of*



La guerra de las galaxias filmeko irudi bat.

George Lucasen unibertsoaren hasiera

LA GUERRA DE LAS GALAXIAS

T5 - 22:00

Zuz.: George Lucas. Akt.: Harrison Ford, Mark Hamill. 120m. AEB. 1977.

Hau da zientzia fikziozko filmak gustukoak ditu-
zuenei gomendatu nahi dizuedan gaurko harribi-
txia. George Lucasen *Star Wars* trilogia zoragarria-
ren lehen atala, egungo ikusleek estreinaldiko ga-
raikoek bezala gozatuko dute. Espazioan barrena
garatzen diren abenturen artean klasikoa bilaka-
tua, nabarmentzekoak ditu eszenaratzea, soinu
banda zoragarria eta istorioa bera, irudimen han-
diz eratutako ipuin fantastiko ederra. George Lu-
casen lanak ez zuen hasiera batean egun duen har-
rera. Urteen poderioz *Star Wars*-ek ardo onak be-
zala kalitatean asko egin du gora. Bi egun barru
zinemagileak *Stars Wars: Episode II Attack of the
Clones* estreinatuko du mundu osoan, eta lan ho-
rrek piztu duen ikusminari erreparatzea besterik ez
dago *Stars Wars* zinema mundutik baino haratago
doala frogatzeko.

Dr. T, 1953) nekatu samar
bat aritu zen izarroi agin-
duak emanetz. Eszenara-
tzea zuzena baina arrunta
da, argumentuaren plan-
teamendua bera bezala.
Pistolero batek bizimodu
arriskutsu, zail eta gogo-
rra utzi eta etxera itzul-
tzea erabakiko du. Bestal-
de, aurkituko duen egoera

ez da, ez, hark espero zue-
na. Rol hori Granger jau-
nak antzezten du; beraz,
urtetan zehar maiz jokatu-
riko rol bera errepikatuko
du, honetan.

PINOT, SIMPLE FLIC

★★ F2 - 20:55

Zuz.: Gerard Jugnot. Akt.: Gerar Jugnot, Pie-
rre Mondy. 90 min. Frantzia. 1984.

Ane Muñoz

Komedia txiki honekin
erraz entretenituko zare-
te, kalitate gutxikoa bada
ere. Gerard Jugnot aktore
ezagunak zuzendu zuen,
baita rol nagusia antzeztu
ere ; Pinot polizia prota-
gonista da. Jugnotek
zuzendutako lehen lana
izanik, ez dabil makal.

UNA HISTORIA DIFERENTE

★★ ETB2 - 22:15

Zuz.: Danny Boyle. Akt.: Ewan McGregor, Ca-
meron Diaz. 115 min. 1997.
Danny Boylek *Trainspo-
tting* zoragarriarekin arra-
kasta handia lortu zuen
bazter guztietan, baina
geroztik ez du tajuzko la-
nik egin. Cameron Diaz
eta Ewan McGregor mo-
dako izar gazteak biltzen
baditu ere, baliabide asko-
rekin egindako film bitxi
hau huts samarra da eta,
oro har, nahikoa ero, as-
pergarri eta inozoa.

L'OBSEDE

★★★ Arte - 00:40

Zuz.: William Wyler. Akt.: Terence Stamp, Sa-
mantha Eggar. 120 min. EB-AEB. 1965.
William Wyler zuzenda-
riak Terence Stamp eta
Samantha Eggar bildu
zituen, eta abentura goza-
garri honetan pertsonaia
nagusiak antzez zitzaten
eskatu zien. Antzezpenok
eta William Wylerrek
haien ezpainetan jarritako
elkarrizketa landuak
goraipatzekoak dira. Ban-
ketxe bateko langile
xume batek, bat-batean,
diru pila irabaziko du.
Ondoren, aspaldidanik
maite duen emakumea
bahitzea erabakiko du,
haren maitasuna lortze
aldera edozertarako gai
dela erakutsiz.

irratia



EUSKADI IRRATIA. Unibertsitateak garapenerako lankide-
tzan bete dezakeen zereginaz arituko dira gaur eta bihar
EHUk antolatutako jardunaldietan eta horretaz mintza-
tuko da gaur 09:30ean Adolfo Moraiz. 10:00etan, Ramon
Agirreran gogoetak entzun ondotik, *www.dantza.com*
webguneaz hitz egingo dute. Jarraian, Joxe Manuel
Odriozolak *Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak* li-
buruaren berri emango du. 11:00etan, PiLT musika tal-
deko kideek *Minus* diskoa aurkeztuko dute. Eguerdian,
eguraldiaren berri jaso ondoren, «azpi» hitzaren ingu-
ruan arituko dira hizketan. Arratsaldeko 17:00etan, *Lau-*

retan babel irratsaioan, Juan Antonio Larrañaga futbol
jokalaria ohia eta Euskadi Irratiko kolaboratzailea elka-
rrizketatuko dute. Iñaki Egañak, bestalde, *Gallarta* libu-
rua aurkeztuko du.

RADIO EUSKADI. Eusko Alkartasunako Rafael Larreina el-
karrizketatuko dute gaur goizean *Boulevard* irratsaioan.
Ondoren, Rafael Torresek Espainiako Gerra Zibileko
galtzaileei buruzko liburu baten berri emango du. Unita-
te mugikorra Bergarara joango da, Fagorreko Katea zen-
tro bat bisitatzera.

ETB-1	TVE1
07:05: Betimu. 07:25: Betizu. Zulakin eta Alberto otsopeto. Sakura, kartak zakura. Yogi hartza. Gadget inspektorea. 08:50: E-klipsea. 09:50: Lekuan lekuko. 10:15: Ederra eta piztia. 11:05: Benta berri. 11:35: Penelope enea. 12:05: Elkartasunaren bideak. Brasil. 12:40: Bidaide. 12:40: Lurraren bidaia. 13:35: Betizu. Shin Chan. 14:00: Gaur Egun. Albistegia. 14:45: Bertatik bertara. 15:15: Txirindularitza. Italiako giroa. 16:55: Bidaide. Maratoia Marokoko basamortuan. 17:55: E-klipse@. 18:20: Betizu. Dennis eta Gnasher. Muka-muka. Shin Chan. 19:15: Betimu. 20:20: Iparraldearen orena. 20:28: Gaur egun. Albistegia. 21:00: Bertatik bertara. 21:45: Goenkale. Telesaila. 22:30: Sorginen laratza. 23:50: Firin faran. 00:50: Bakarrik edo... 02:50: Mendeari begira. 03:50: Bertatik bertara. 04:25: Esanak esan. 05:00: Elkartasunaren bideak. 05:25: Euskal herritik. Iturmendiko haritza. 06:00: 64. 06:25: Herri musika sorta. 06:40: Ikusgela.	06:00: Canal 24 horas. 07:30: Telediario matinal. Los desayunos de TVE. Luis Mariñasek, J.J. Armas Marcelok, eta Consuelo Sanchez Vicentek aurkeztutako saioa. 10:15: Nano. Telesaila. 12:00: Saber vivir. Manuel Torreiglesiasek aurkeztutako saioa. 13:00: Así son las cosas. Manuel Gimenezek aurkeztutako saioa. 14:00: Informativo Territorial. Albistegia. 14:30: Corazón de primavera. Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa. 15:00: Telediario 1 Albistegia. 15:55: Eguraldia. 16:05: La verdad de Laura. Telesaila. 17:00: El manantial. 18:00: La fuerza del deseo. Telesaila. 20:00: Gente. Pepa Bueno eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako saioa. 21:00: Telediario -2. Albistegia. 21:55: Eguraldia. 22:00: Triunfomania. Carlos Lozanok aurkeztutako saioa. 01:00: Telediario 3. Albistegia. 01:30: Reyes y reyes. Telesaila. 03:00: Canal 24 horas.
ETB-2	A3
07:00: Del pais de los vascos. Petit Bayonne. 07:30: Europa, europa. 07:55: Bonanza. Telesaila. 09:30: El punto. Gonbidatua: Roman Knorr. 10:00: Forum. Gonbidatua: Jesus Mari Lazkano. 10:35: Clasicos en serie. La casa de la pradera. El amor no es como lo pintan. 13:15: La cocina de Pedro Subijana. 13:30: Euskadi directo. 13:30: Navarra directo (Nafarroan). 14:00: Date el bote. 14:58: Teleberri. Albistegia. 15:45: Lo que faltaba, 18:20: Zinema. El rifle del forastero Zuz.: Roy Rowland. Akt.: Stewart Granger, Rhonda Fleming. 1957. 20:00: Esta es mi gente. Magazina. 20:58: Teleberri. Albistegia. 21:45: La noche de... (22:15) Una historia diferente Zuz.: Danny Boyle. Akt.: Ewan McGregor. 1997. 00:35: El elegido. 02:30: Esta es mi gente. 03:25: Lo que faltaba. 05:30: Forum. 06:00: La botica de la abuela. 06:50: El otro Mexico.	07:00: Princesa Sissi. Marrazki bizidunak. 07:30: Megatrix. Wedding Peach. Tres amigos y Jerry. Campeones. Eek el gato. 09:10: Noticias. 09:30: El primer cafe. 10:30: De buena mañana. 13:25: Informativos territoriales. 13:30: Nada es para siempre. 14:00: Desesperado Club Social. Estudio de actores. Los Simpson. 15:00: Noticias 1. Albistegia. 16:00: Yo soy Betty, la fea. Telesaila. 16:50: Sabor a ti. Ana Rosa Quintanak eta Antonio Hidualgok aurkeztutako magazina. 19:00: El diario de Patricia. Patricia Gaztañagak aurkeztutako saioa. 20:00: Pasapalabra. 21:00: Noticias 2. Albistegia 22:00: Compañeros. 23:40: Especial informativo: <i>Aniversaio real</i> . 00:45: Abierto al anochecer. 02:00: Noticias 3. Albistegia. 02:30: Televenta. 04:00: Zinema. Noche de reyes, o lo que vosotros queráis Zuz.: Trevor Nunn. Akt.: Helena Bonham. 1995. 06:00: Sueños. 06:15: Se ha escrito un crimen.